

## Martutene

# Mateo Goya, Mateo Errotaren oinordeko

Duela 30 bat urte, Martuteneko Mateo Errota baserria bota zuten. Bertako sendiak nekazaritza lanei eutsi zien eta, Mateo Errota zegoen lekutik gertu, Mateo Goya baserria eraiki zuen.

Lierni Ezeiza

Azken urteetan bezala, aurten ere Martuteneko, Loiolako eta inguruetako baserritarrak Loiolan elkartuko dira San Isidro egunean, hilak 15. Lehenik, meza izango dute eta, ondoren, hamaiketako eta bertso bazkaria. Azkenaldian, Joxe Aierbe loiolatarrak izan du ospakizuna antolatzeke ardura. Ez da lan samurra. Izan ere, inguru honetan, beste hainbat lekutan bezala, baserri asko galdu da urteen joan-etorriarekin, eta geratzen diren bakanak sakanatuta daude.

Martuteneko industrialdea egin zuten lekuan, adibidez, zenbait baserri bota zituzten duela 30 bat urte. Mateo Erro-

ta zen haietako bat. Dena dela, Alberto Elizegik, bere hiru anaiek eta gurasoek ez zuten nekazaritza utzi nahi izan, eta Mateo Errota zegoen tokitik hurbil, Marrus bidean, Mateo Goya eraiki zuten. Gaur egun, Alberto Elizegi, bere emaztea eta alabetako bat bizi dira bertan.

### Barazki saltzaileak

Duela zazpi urtera arte, abere asko zuten Mateo Goyan, 20 bat behi, hain zuzen. Orain, ordea, bost bat txekor besterik ez dituzte, eta baserriko baratzean bildutakoa saltzea dute ogibide. Leku askotan saltzen dituzte barazkiak: Martuteneko industrialdeko tabernetan, Egiako harategietan eta dendetan... Garai bate-



Alberto Elizegi, Mateo Goya baserri aurrean.

an, Albertoren amona ibili zen saltzaile, zaldi bat lagun zuela. Ondoren, amaren txanda iritsi zen eta, azkenik, Albertok hartu zion lekukoa amari. "Mende erdia baino gehiago daramagu barazkiak saltzen", dio Albertok. Azoketara, aldiz, ez dute joateko ohitura.

Aipatu bezala, Mateo Errota baserria lurrera bota izanak ez zuen Albertoren bizimodua aldarazi. Hala ere, auzotarrak ez dio errealitateari bizkarra eman nahi. Badaki bizimodua izugarri aldatu dela: "Baserritarren artean asko laguntzen genion elkarri. Baserritar ko-

fradia bat ere bazen. Makinarik ez zegoenean, bata bestearen baserrira joaten ginen, belarra moztzen laguntzera. San Anton egunean, bestale, baserritarren bazkaria egiten genuen, eta bazkal ondoren, baserriz-baserri ibiltzen ginen ganadua ikusten. Orain, berriz, nork bere bizimodua egiten du". Albertok nostalgiaz hitz egin digu geroari buruz: "Martutenen, Altzan... baserri asko galtzen ari dira. Hau bukatzen ari da. Gure ondorengoek ez dute jarraitzeko asmorik, ezin baita gaur egun baserri lanetik bizi".

## Parte Zaharra

### Argazki erakusketa

Bren O'Connor argazkilaria Ingelesaren erakusketa jarri dute hirigo kaleko Hiru di Argazkilariak dendan. O'Connor Donostian bizi da, eta gure hirian egindako argazkiak daude erakusketan. Manhattango kale giroa islatzen duten irudiak ere badira. Bren O'Connorren argazkiak malatza bukaerara arte egongo dira ikusgai.



### Kantu jira

Larunbatean, hilak 15, Amara Berri eta Inbaurrondo Kantuz taldeen ekimenez, euskal kulturaren aldeko kantu jira egingo da Parte Zaharreko kaleetan. Kantu jira Bilintx denda aurretik abiatuko da 12.00etan, eta nahi duen orok parte har dezake. Hasi baino lehen, abestien letrak banatuko dituzte bertaratutakoan artean.